

90.203,93 euro, eta, bestalde, onartutako diru-laguntzaren bigarren eta hirugarren ordainketak indargabetzea, hau da, 209.240,92 eta 103.251,29 euro.

Garapen Lankidetzarako Zuzendaritzak 2003ko ekainaren 9an diru-laguntzaren entitate onuradunak eskatutako ukoaren aldeko irizpena eman zuen. Horren ondorioz, hau

EBATZI DUT:

Lebenengoa.— «Desarrollo Politécnico de Yumbo» proiektuan (PRO-1999K2/0102 erref.) Fundación para la Formación Técnica en Máquina-Herramienta (IMH) entitateak eskatutako ukoa onartzea, 90.203,93 euro itzuli beharra dakarrena. Garapenean Lankide Iza-teko eta Laguntzeko Fondoren konturako 1999ko deialdiaren barruan aurkeztu zen proiektua.

Bigarrena.— Ebazpen honen aurka gora jotzeko erre-kurtsoa aurkez daiteke. Ebazpena jakinarazten den egunaren biharamunean hasi eta hilabetekoa izango da horretarako epea.

Vitoria-Gasteiz, 2003ko ekainaren 9a.

Garapen Lankidetzarako zuzendaria,
IGOR IRIGOYEN FUENTES.

OSASUN SAILA

Zk-4715

AGINDUA, 2003ko uztailaren 21ekoa, Osasun sailburuarena, zeinak 2003 urtean hasiko diren osasun alorreko ikerlan-proiektuetarako diru-laguntzak emateko deialdirako eskabideak aurkezteko epea luzatzen baitu.

2003ko uztailaren 3an, Osasun sailburuaren 2003ko ekainaren 3ko Agindua argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian. 2003 urtean hasiko diren osasun alorreko ikerlan-proiektuetarako diru-laguntzak emateko deialdia egiten du Agindu horrek.

Aipatutako Aginduak 10. artikuluan, 5. paragrafoan, dioenez, eskabideak aurkezteko epea bi hilabetekoa izango da Agindua indarrean hasten denetik.

Diru-laguntza horiek lortzeko, guztiz derrigorrezkoa da proiektua gutxienez zentro sanitario biren lankidetzarekin egitea. Horrek koordinazio-kontaktu asko eskatzen ditu talde desberdinetako ikertzaileen artean, proiektua aurkeztu baino lehen. Kontuan hartuta, Agindua argitaratu den eguna dela-eta eskabideak aurkezteko epea ia guztiz bat datorrela profesional sanitarioen ohiko uda-oporraldiarekin, eta EAEko Ospitalee-

primer pago, esto es 90.203,93 euros y la anulación del segundo y tercer pago de la subvención aprobada, esto es 209.240,92 y 103.251,29 euros respectivamente.

En fecha de 9 de junio la Dirección de Cooperación al Desarrollo informa favorablemente a la renuncia solicitada por la entidad beneficiaria de la subvención, en vista de lo cual,

RESUELVO:

Primero.— Aceptar la renuncia solicitada por la entidad Fundación para la Formación Técnica en Máquina-Herramienta (IMH) al proyecto «Desarrollo Politécnico de Yumbo» (referencia PRO-1999K2/0102) presentado dentro de la convocatoria de ayudas a proyectos con cargo al FOCAD para 1999, lo cual supone la devolución de 90.203,93 euros.

Segundo.— Contra la presente resolución, se podrá interponer recurso de alzada en el plazo de un mes, a partir del día siguiente a su notificación.

En Vitoria-Gasteiz, a 9 de junio de 2003.

El Director de Cooperación al Desarrollo,
IGOR IRIGOYEN FUENTES.

DEPARTAMENTO DE SANIDAD

Nº-4715

ORDEN de 21 de julio de 2003, del Consejero de Sanidad, por la que se amplía el plazo de presentación de solicitudes a la Convocatoria de ayudas a proyectos de investigación sanitaria a iniciar en el año 2003.

Con fecha 3 de julio de 2003 se publicó en el Boletín Oficial del País Vasco la Orden de 3 de junio de 2003, del Consejero de Sanidad, por la que se convocan ayudas a proyectos de investigación sanitaria iniciar en el año 2003.

El Artículo 10 párrafo 5 de la citada Orden determina que el plazo de presentación de solicitudes será de dos meses a partir de su entrada en vigor.

Es condición indispensable para optar a estas ayudas que el proyecto sea realizado en colaboración de, al menos, dos centros sanitarios, lo que supone la necesidad de numerosos contactos de coordinación previos a la presentación del proyecto entre los investigadores de los diferentes equipos. Estimando que, dada la fecha en que se ha publicado la Orden, el plazo de presentación de solicitudes coincide en su mayor parte con el periodo

tako Ikerkuntza Babesteko unitateetako eta Lehen Mailako Atentzioko unitateetako arduradunek esandakoa entzun ondoren, beharrezkotzat jotzen da Deialdi-aginduan aurreikusitako hilabete biko epea luzatzea.

Eskabideak aurkezteko epea luzatzeak Aginduaren 14.3 artikuluan aurreikusitako epea gutxitzea dakar, 30/1992 Legearen 42.2 artikulua ezarritakoa bete dadin.

Hori horrela, honakoa

XEDATU DUT:

1. artikulua.— 2003 urtean hasiko diren osasun alorreko ikerlan-proiektuetarako diru-laguntzak emateko deialdia egiten duen Osasun sailburuaren 2003ko ekainaren 3ko Aginduko 10. artikulua 5 paragrafoa aldatzea, eta honela geldituko da:

«5.— Eskabideak aurkezteko epea 2003ko urriaren 4an amaituko da».

2. artikulua.— 2003ko ekainaren 3ko Agindu bereko 14. artikulua 3. paragrafoa aldatzea, eta honela geldituko da:

«3.— Hartu den erabakia interesatuetako bakoitzari jakinaraziko zaio eskabideak aurkezteko epemugaren ondorengo hiru hilabeteko epearen barruan. Ebazpenarekin batera, onuradun bakoitzari dagokion onarpen dokumentua helaraziko zaio; honek, bete ondoren eta zentroko arduradunak eta ikertzaile nagusiak sinaturik, Osasun Plangintza eta Ordenamenduko Zuzendaritzara bidali behar du.»

Vitoria-Gasteiz, 2003ko uztailaren 21a.

Osasun sailburua,
GABRIEL M.ª INCLÁN IRÍBAR.

habitual de vacaciones estivales de los profesionales sanitarios y oídos los responsables de las diferentes Unidades de apoyo a la investigación de los Hospitales y Atención Primaria de la CAPV, se considera necesaria la ampliación del plazo de dos meses previsto en la Orden de convocatoria.

La ampliación del plazo de presentación de solicitudes obliga a reducir el plazo previsto en el artículo 14.3 de la Orden a fin de dar cumplimiento a lo dispuesto en el artículo 42.2 de la Ley 30/1992.

En su virtud,

DISPONGO:

Artículo 1.— Modificar el párrafo 5 del artículo 10 de la Orden de 3 de junio de 2003, del Consejero de Sanidad, por la que se convocan ayudas a proyectos de investigación sanitaria a iniciar en el año 2003, que queda redactado de la siguiente forma

«5.— El plazo de presentación de solicitudes finalizará el 4 de octubre de 2003».

Artículo 2.— Modificar el párrafo 3 del artículo 14 de la misma Orden de 3 de junio de 2003, que queda redactado de la siguiente forma:

«3.— La Resolución adoptada será notificada individualmente a los Interesados en el plazo de tres meses a partir de la finalización del plazo de presentación de solicitudes. Junto con la resolución se enviará a cada entidad beneficiaria el correspondiente documento de aceptación que deberá remitir cumplimentada con las firmas del responsable del centro y la del investigador principal a la Dirección de Planificación y Ordenación Sanitaria.»

En Vitoria-Gasteiz, a 21 de julio de 2003.

El Consejero de Sanidad,
GABRIEL M.ª INCLÁN IRÍBAR.